



aibala! LEHIAKETA

Aramaixon bai.Baina non dago?

Garai batean, herrian pasatzen ziren gertaerak iragartzeko sarritan erabiltzen ziren kanpaiak. Esate baterako, auzo guztietan jai bezperetan "errepikak" jotzen ziren. Domeketan, meza baino ordubete eta ordu erdi lehenago ere bai. Eta azkena, mezara sartzeko unean. Kanpaien bidez adierazten ziren elizkizunak.

Beste gertaera batzuk ere kanpaiekin iragartzen ziren, esatera baterako heriotzak. Baina hil-kanpaiak desberdin jotzen ziren, segun eta nor hiltzen zen. Gizonezkoa bazen, bost kanpai jotzen ziren, eta emakumea bazen hiru. Umea zenean "kanpa txikiñe".

Sutea gertatzen zenean be kanpaiak jotzen ziren, jarraian eta denak batera, laguntza eskatzeko modua zen.